

berriak

Triforio

-tik



araba
álava



San Prudentzioko eta Estibalizko ospakizunak

Santa Maria Katedrala izan zen Arabako Foru Aldundiak antolatutako San Pruden-

tzioko eta Estibalizko Andre Mariaren ospakizunei hasiera emateko aukeratu zuten lekua, alternatiba eta "tradizioaren omenaldi" gisa, bigarren urtez jarraian Arabako Jai tradizionalak ezin izan direlako ospatu.

Jardueren programari hasiera emateko, ostegunean, hilaren 22an, inaugurazio-hitzaldia irakurri zen tenplu barruan -1971etik jaiei hasiera emateko erabiltzen den pregoiaren ordezkotako gisa-, Maite Ruiz de Austri zinema-zuzendari eta gidoilariaren eskutik. 2020ko jaietako pregoia ira-

kurri behar zuen zinegile ezaguna, ospakizun-ekitaldietako "Zeremonia Maistra" bihurtu zen orainoan.

Hitzaldiaren ostean, "Alos Quartet" taldearen kontzertuaz eta Amaia Elizaran dantzariaren emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Aldez aurretik, Ramiro González Arabako foru diputatuak zuhertasunerako, baina baita itxaropenerako, deia egin zuen datorren urtean "Armentiako zelaietan berriz elkartzea" lortzeko.



Historiaren estratuak. Erregeen Kapera nabearen barrutik ikus daiteke jada, erantsitako irudian hauteman daitekeen bezala, mendeetan zehar katedralean egindako esku-hartzeen arrastoa agerian utziz. Oso irudi gutxi gogorarazten dute hain argi Arkitekturaren Arkeologia zer den.

Aterpetxea eta bisitak, Turismoaren Kode Etikoaren bitartez ziurtatuta



Santa Maria Fundazioaren aterpetxeari eta Katedrala bisitatze-ko programari, oinarritzko printzipio gisa errespetua eta elkar ulertzen laguntzea oinarri hartuta, turismo jardueraren eguneroko jardunean erantzukizunaren eta jasangarritasunaren printzipioekiko konpromisoa bermatzen duen Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa zigorria eman zaie.

Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa, Munduko Turismoaren Kode Etikoaren egokitzapen bat da euskal kulturaren eta nortasunaren ezaugarrietara, eta haren helburua, turismo arloko erakunde guztiek beren eguneroko jardunean erantzukizun sozialak eta ingurumen eta ekonomia arloko jasangarritasuna txertatzea da. Horrenbestez, bai aterpetxea bai fundazioa Eusko Jaurlaritzako Etika Turistikoaren Erregistroan daude dagoeneko.



Santa Anako Portadaren zaharberritzea, urratsez urrats

Berriak Triforiotik aldizkariaren ale honetan, XIV. mendean Santa Anako portada eraikitzeko prozesuaren ilustrazioak berreskuratutako ditugu. Oraingo honetan, egitura hori amaitu aurreko zereginetan jarriko dugu arreta.

III. Kapituluak Azken lanak


Hala portadak eraikuntzaren ikuspegitik duen konplexutasun eta eskulturen aberastasun artistikoak bere lanean oso espezializatuak diren pertsonen egindako lan saiaturia izan zela erakusten digute. Jantzien tolesturak, aurpegiatako keinuak edo apaingarriak, besteak beste, benetako trebetasunez zizelkatu ziren. Zalantzarik gabe, obrak denbora luze luze zuzatu behar izan ziren, eta zehazki zenbat ez dakigun arren, azken azterlanek XIV. mendearen erdialdeko hamarkadetan izan behar zuela adierazten dute.

① Horrelako sarrera monumental batean, multzoa errematatzen duten arkuek (edo arkiboltek) osatzen dute zatirik zailena. Lanak barrutik kanporantz zihoazen. Lehenbizi, atariko tinpanoaren egitura altxatzen zen.




② Tinpano hori, bigarren une batean, barruko lehenengo arki-boltak osatuko zituzten dobelak eusteko oinarria zen.

③ Azkenik, beren tamaina handia zela eta, azken arkuak muntatzeko zinbriak izeneko egurrezko behin-behineko armazoiak erabili behar ziren. Azken horiek ez ziren egitura guztia ondo eginda egon arte erretiratzen.



- ④ Obraren patroiei dagokien armarri heraldikoa margotzen.
- ⑤ Langileak Santa Katalinaren estatua horma-hobi batean jartzen.
- ⑥ Tenplu barruan, tornu astun batek laguntzen zien langileei piezak altxatzen.
- ⑦ Horma-hobi horietako gehienak hutsik iritsi zaizkigu gaur egunera.
- ⑧ Langilea hutsuneak zituzten junturen puntuetan argamasa sartzten.
- ⑨ Emakume langilea pintura-geruza bat aplikatzen azken ukitu gisa, multzoari uniformetasuna emateko.
- ⑩ Santa Luziaren irudia.
- ⑪ San Bartolomeoren eta Santiagoren irudiak San Pedro elizatik ekarri ziren.



Ilustrazioa eta testuak: **Ismael García-Gómez (GPAC, Enklabe KST)** | Oinarritzko orto-argazkia: **Miren Fernández de Gorostiza (Enklabe KST)** | Zaharberritzea: **Petra Koop. elk.** | Gehiago jakin nahi izanez gero: **Lahoz, L., 2001, 'Sobre la imagen esculpida', Azkarate, Cámara, Lasagabaster eta Latorre, Gasteizko Santa Maria Katedralaren zaharberritzeko Plan Gidatzailea, 208-212. orrialdeak**

Jarrai gaitzakezu